Zallako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu profesionalei zuzendutako laguntza-programa:

Xedea: Merkataritza, industria eta zerbitzuen arloko mikroenpresentzako lokalak (10 langile baino gutxiagoko eta 2 milioi euro baino gutxiagoko fakturazioa) alokatzen eta/edo egokitzen laguntzea, jarduera ekonomikoa sortzeko.

1) Enpresa berriak abiarazteko laguntzak:

a) Lehenengo **6 hilabeteetan alokairu-kuotak ordaintzeko laguntzak:**

Lokalen alokairua lehenengo sei hilabeteetan ordaintzeko.

Gehienez ere, kostu osoaren % 40 eta 2.000 euro.

b) Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza **Zallan duten enpresa berriak abiarazteko gastuetarako diru-laguntzak:**

Gehienez ere, inbertsioaren % 40 eta 3.000 euro.

2) Zallan finkatuta dauden enpresak modernizatzeko laguntzak:

Gehienez ere, inbertsioaren % 40 eta 3.000 euro.

3) Terraza berriak instalatzeko edo dauden terrazak udal-araudira egokitzeko laguntzak:

Gehienez ere, % 40 eta 2.000 euro

GEHIENEO DIRU-KOPURUA LOKAL ETA ESKAERA BAKOITZEKO – 7000,00 euro.

ZALLALOKALAK 2018

Zallan kokatutako merkataritza, industria eta zerbitzuen arloei zuzendutako “Zallalokalak” laguntza-programa 2018 ekitaldirako arautzen duten oinarriak. Zallako establezimenduak alokatzeko eta/edo egokitzeko diru-laguntzak, jarduera ekonomiko bat gauzatzeko.

Enkarterri Berri Zerbitzuak, SLren administrazio kontseiluak 2018ko Martxoaren 15ean egindako bileran, “Zallalokalak” programaren 2018ko deialdiaren oinarri arautzaileak onetsi zituen; programa horren bidez, komertzio eta zerbitzu profesional berriak abiarazteko lokalak alokatzeko, modernizatzeko eta egokitzeko laguntzak ematen dira, Zallan jarduera ekonomikoaren garapena sustatzeko. Oinarri horiek honela geratu dira idatzita:

Oinarri hauek diru-laguntzen esparru orokorra arautzen dute 2018. urtean.

0. Zioen azalpena

2013. urtean, Zallako Udalak enplegua eta ekonomia sustatzeko zenbait neurri abiarazi zituen; besteak beste, Zallalokalak programa

2017 ekitaldian, Enkarterri Berri Zerbitzuak, S.Lk jarraitu zuen lan horrekin, eta 2018an berdin jarraitzen du. Programa honen helburua da merkataritza, industria eta zerbitzuen arloan ekintzailtza eta mikroenpresen (10 langile baino gutxiago eta 2 milioi euro baino gutxiagoko fakturazioa) modernizazioa sustatzea, Zalla udalerrian jarduera ekonomikoa sortzeko.

Diru-laguntza horiek, alde batetik, komertzioa edo zerbitzua finkatzen laguntzen dute, eta, bestalde, ibilbide frogagarria duen enpresa modernizatzen laguntzen dute.

1. Xedea

Oinarri hauen xedea laguntza hauek arautzea da:

1) Enpresa berriak sortzeko /abiarazteko laguntzak:

1.1) Lehenengo 6 hilabeteetan alokairu-kuotak ordaintzeko laguntzak: lehenengo sei hilabeteetako alokairua ordaintzeko laguntza bat ematen da.

1.2) Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Zallan duten enpresa BERRIAK abiarazteko gastuetarako diru-laguntzak. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptu hauek hartu behar dira kontuan:

- Jarduerari lotutako ekipamendua, altzariak, makinak eta tresnak erostea, ibilgailuen erosketa izan ezik. Ibilgailuen erosketa sartzen da kontzeptu honetan, baldin eta behar bezala errotulatuta badaude eta jarduera gauzatzeko ezinbestekoak direla egiaztatzen bada; kasu horretan, ibilgailua beharrezkoa dela egiaztatzen duen memoria, ibilgailuari emandako erabileraren eta errotulazioaren dokumentazioa eta dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da. Merkatuaren prospekzio-lanak eta azterlanak, besteren balia bideak erabiliz egiten bada.
- Proiektua abiarazteko gastuak (eraketaren gastuak, erregistroa, markak, patenteak).
- Enpresa abiarazteari zuzenean lotutako zerbitzu profesional independenteak.
- Ekipo informatiko ez eramangarriak (bestela, eramangarria izatea beharrezkoa dela justifikatu beharko da). Instalaziorako eta abiarazteko behar diren hardwarea eta softwarea. Makina erregistratzaileak, kode-irakurgailuak, TPV.
- Oinarritzko egokitzapeneko obrak (elektrizitatea, argiteria, iturgintza, igeltserotza, zurgintza, pintura...), Zallan jarduera ekonomikoak gauzatzeko lokalak irekitzeko beharrezkoak direnak, udal-ordenantzaren arabera.
- Bezeroentzako wifi sareen instalazioa.
- Web orria sortzea.
- Marketin digitaleko kanpainak eta marka on-line kokatzeko kanpaina.

- Merkataritzako errotulu elebidunak (euskara/gaztelania). Dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da.

Gastu horiek diruz lagundu ahalko dira, gehienez sei hilabeteko epean sortu badira, enpresak ekonomia-jardueretan alta ematen duenetik hasita, eta/edo jarduera hasi aurreko sei hilabeteetan sortu badira, betiere negozioa abiaraztearekin lotuta badaude.

2) Zallan finkatuta dauden enpresak modernizatzen laguntzea. Dauden negozioak modernizatzeko, hobetzeko eta egokitzeko laguntzak.

Kontzeptu hauek diruz laguntzekoak izango dira:

- Modernizazioari buruzko azterlanak eta/edo proiektuak, besteren baliabideak erabiliz egiten bada.
- Energia-auditoretza egitea, beharrezkoa denean, besteren baliabideak erabiliz egiten bada.
- Proiektu teknikoak idaztea eta lanen zuzendaritza fakultatiboa.
- Merkataritzako establezimenduaren barneko eta kanpoko egokitzapeneko obrak eta instalazioak, establezimenduaren egokitzapenari, banaketari edo irudiaren hobekuntzari eragiten badiote; horrez gain, energia aurrezteko edo energia-eraginkortasuneko neurriak ezartzeko edo oztopo arkitektonikoak kentzeko obrak eta instalazioak.
- Merkataritzako errotulu elebidunak (euskara/gaztelania) eskuratu eta jartzea (dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da).
- Jardueraren garapenari lotutako altzariak eta makinak eskuratu, instalatu eta muntatzea.
 - Bezeroentzako wifi-sareak instalatzea.
 - Web orria sortzea.
 - Marketin digitaleko kanpainak eta marka on-line kokatzeko kanpaina.
 - Ekipo informatiko ez eramangarriak (bestela, eramangarria izatea beharrezkoa dela justifikatu beharko da). Instalaziorako eta abiarazteko behar diren hardwarea eta softwarea. Makina erregistratzaileak, kode-irakurgailuak, TPV.

3.- Terraza berriak instalatzeko edo dauden terrazak udal-araudira egokitzeko laguntzak: diru-laguntzen helburua da ostalaritzako establezimenduak terrazai buruzko udal-ordenantzetan ezarritakora egokitzeko instalazioak edo jarduketak egitea.

Kontzeptu hauek diruz laguntzekoak izango dira:

- Modernizazioari buruzko azterlanak, besteren baliabideak erabiliz egiten bada.
- Kanpoaldeko estaldura-elementuak (eguzkitakoak eta toldoak...). Justifikazioko dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da.
- Kanpoaldeko altzariak: aulkiak, mahaiak, jardinerak eta alboko babesak. Justifikazio-dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da.
- Lokalaren kanpoaldean bezeroak erosoago egoteko elementuak: kanpoaldeko berogailuak... Justifikazio-dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da.
- Diruz lagundutako elementuen errotulazioa, elebiduna bada (euskaraz eta gaztelaniaz). Justifikazio-dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da.

Gastu hauek inola ere ez dira diruz laguntzekoak izango:

- Establezimenduen eraikuntza, eraikin iraunkor bat eraikitzeke ekintza eta ondorio gisa ulertuta.
- Zulaketa-, zimendatze- eta forja-lanak.
- Izakinak eskuratzea.
- Ibilgailuak eskuratu edo alokatzea.

- Eskualdaketa eta fidantzen prezioa edo zenbatekoa.
 - Finantzako errentamenduaren bidez finantzatutako inbertsio eta gastuak (*leasing* eta/edo *renting*).
- Ekipo informatiko ez eramangarriak, eramangarria izatea justifikatzen denean izan ezik.
- Edozein ekiporen konponketak (makinak, altzariak...).
 - Elementu apaingarriak: koadroak, gortinak, bionboak, alfonbrak, ispiluak, esekitokiak, kuxinak, horma-irudiak...

Diruz laguntzen den zenbatekoan ezin da BEZa edo beste edozein tributu sartu.

2. Baldintzak

Enpresa onuradunek baldintza hauek bete behar dituzte:

7. Alokatu eta/edo egokituko den lokala Zallan egon behar da. Ez da beharrezkoa titularra Zallan erroldatuta egotea.

8. Enpresa berriek, jarduera hasten denean, eginda izan behar dute Zallan proiektua egitea bideragarria dela egiaztatzen duen plan bat. Plan hori DEMAK lagunduta egin behar da, edo, bestela, lan-orientazioa egiteko Lanbidek ofizialki baimendutako erakunderen batek lagunduta. Plan hori sustatzailearen ardura da, eta gutxienez bi hilabetez jaso beharko da lehen aipatutako erakundeen aholkularitza.

9. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafe bereko jarduera bat eten ez izana, laguntzen programa honetan eskaera egin aurreko bi urteetan.

10. Jarduera eskaera egin aurreko 18 hilabetez, gutxienez, gauzatu izana.

11. Enpresa/erakundeak administrazioen, erakunde edo organismo publikoen mende ez egotea edo haiekin loturarik ez izatea (% 40ko edo gehiagoko partaidetza)

12. Administrazio publikoekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea. Zallako Udalarekin duen zerga-egoera ofizioz egiaztatuko da.

3. Onuradunak

Honako hauek izan daitezke laguntzen onuradunak:

2016ko uztailaren 1etik aurrera (egun hori barne) Zallan kokatuta dauden komertzio, enpresa eta profesional BERRIAK, mikroenpresa gisa sailkatutakoak (10 langile baino gutxiagoko eta 2 milioi euro baino gutxiagoko fakturazioa), haien forma juridikoa edozein delarik ere, jarduera ekonomiko bat gauzatzeko Zallan lokal bat alokatu eta/edo egokitzen badute.

2016ko uztailaren 1a baino lehenagoko establezimenduak, 2016ko uztailaren 1etik aurrera ekin badiote modernizazio-proiektu bati eta aurreko 3 deialdietan udal-laguntzen programa honen onuradun izan ez badira.

4. Laguntzaren zenbatekoa

1) Enpresa berriak sortzeko /abiarazteko laguntzak:

1.1) Lehenengo 6 hilabeteetan alokairu-kuotak ordaintzeko laguntzak: lehenengo sei hilabeteetako alokairua ordaintzeko laguntza bat ematen da, gehienez ere, kostu osoaren % 40 (gehienez, 2.000 euro).

1.2) Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Zallan duten enpresa BERRIAK abiarazteko gastuetarako diru-laguntzak. Gehienez ere, behar bezala justifikatutako inbertsioaren % 40 eta 3.000 euro.

2) Zallan finkatuta dauden enpresak modernizatzen laguntzea. Dauden negozioak modernizatze, hobetzeko eta egokitzeko laguntzak.

Laguntza horren muga: modernizazio-proiektuan justifikatutako inbertsioaren % 40. Gehienez, 3.000 euro.

3.- Terraza berriak instalatzeko edo dauden terrazak udal-araudira egokitzeko laguntzak: espediente bakoitzeko muga justifikatutako inbertsioaren % 40 izango da, gehienez, 2.000 euro.

Identifikazio sozialaren garrantzia sustatzeko eta tokiko eta eskualdeko biztanleen ongizatean eta bultzada ekonomikoan parte hartzea sustatzeko. Diruz lagundu daitekeen zenbateko osoa % 5 gehiago izan daiteke, baldin eta tokiko (merkatari eta ostalarien elkarteak) edo eskualdeko (enpresa-elkarteak) elkarte sektorial bateko kidea dela egiaztatzen bada.

Eskaera eta/edo negozio bakoitzeko eman daitekeen diru-laguntza ezin da 7.000 euro baino gehiagokoa izan, eta eskatzaile bakoitzak ezin du laguntza bat baino gehiago eskatu kapitulu bakoitzean.

Laguntzak jasotzeko, diruz lagundu daitekeen inbertsio osoa (fakturen bidez justifikatua eta onartua) gutxienez zenbateko hauetara heldu behar da:

- Alokairu-kuotak ordaintzeko laguntzak: gutxienerako diru-kopururik ez.
- Terrazak egokitzeko laguntzak: 1.000 €.
- Enpresak sortu, abiarazi eta modernizatzeko laguntzak: 2.000 €.

5. Eskaeren aurkezpena eta ordaintzeko baldintzak

Eskaerak laguntza-programak ezarritako epeetan aurkeztu beharko dira, 2. artikuluan ezarritako baldintzak bete ondoren, gehienez ere 3 hilabeteko epean antzintasuna (18 hilabete) betetzen denetik.

Halaber, eskatzailearen ardura izango da laguntza horien eskaera epe barruan eta behar bezala aurkeztea, eta Enkarterri Berri Zerbitzuak sozietateak ez du inolako erantzukizunik izango arlo horretan.

Emandako laguntzaren % 100 ordainduko da, eskabidea behar bezala beteta aurkeztu ondoren eta Enkarterri Berri Zerbitzuak, SLren administrazio-kontseiluak aldeko ebazpena eman ondoren.

6. Beste diru-laguntza batzuekin bateragarria izatea

Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira kontzeptu berak direla-eta beste edozein erakunde publikok nahiz pribatuk emandako diru-laguntzekin. Programa honetan ageri diren laguntzek edo diru-laguntzek bete beharko dute Batzordearen abenduaren 15eko (EE) 1998/2006 Erregelamenduan xedatutakoa (Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2006ko abenduaren 28an), hain zuzen, Europar Batasuna Eratzeko Ituneko 87. eta 88. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, edozein enpresari emandako *de minimis* laguntza, guztira, ezin da 200.000 euro baino gehiagokoa izan hiru zerga-ekitalditan. Muga hori laguntza-mota edo lortu nahi den xedea edo *de minimis* laguntzaren forma aintzat hartu gabe ezarriko da. Laguntza hori gainditzen bada, programa hau dela eta emandako laguntza murriztuko da, gaindikinarenean zenbatekoa kenduz.

Ordaindu beharreko zenbatekoa, aldi berean jasotzen diren beste laguntza batzuekin batera, ezin da izan diruz lagundutako proiektuaren benetako kostua baino handiagoa. Hori gertatuz gero, EBZk (Zallako Udala) eman beharreko diru-laguntza murriztuko da, soberakina kenduz.

7. Aurrekontuetako baliabideak eta lehentasuna

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak «Enpresa-jarduerak sustatzeko laguntzak» izeneko partidaren kargura finantzatuko dira. Partida hori sozietatearen ekitaldi honetako aurrekontuan dago.

Partida hori sozietatearen administrazio-kontseiluak onetsitako helburu bererako beste laguntza batzuekin partekatuko da.

Partida horren zenbateko osoa alda daiteke, EBZk hala erabakitzen badu.

Eskabideak aurkezteko epea hasiko da deialdia sozietatearen web orrian argitaratu eta biharamunetik aurrera, Enkarterri Berri Zerbitzuak, SLren administrazio-kontseiluak laguntzak onetsi ondoren.

Eskaerak ebazteko orduan, eskaerak erregistratu diren hurrenkerari zorrotz jarraituko zaio, baldin eta behar bezala bete badira eta espedientea osatua badago, aurrekontuetan beren-beregi esleitu den aurrekontu-kredituaren mugara heldu arte.

8. Eskabideak aurkeztea

Eskaerak eta nahitaezko dokumentazioa Zallako Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (Kosme Bibanko, 2, Zalla) edo "ZallaLan" eraikinean (El Longar, 1, Zalla) aurkeztu beharko dira. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua ezarri beharko da, bai eta, Enkarterri Berri Zerbitzuak, SL sozietateak diru-laguntzak emateko prozeduretarako jarraibide orokorretan (2017ko irailaren 7ko Batza Orokorrak onetsitakoa) ezarritakoa eta toki mailako gainerako araudia ere.

Eskabidea aurkezteak esan nahi du oinarri hauen edukia onartzen dela.

Hala eta guztiz ere, eskabideak aurkezteko epea hasitako urteko azken egunean amaituko da.

9. Eskabidearekin derrigor aurkeztu beharreko dokumentazioa

a) Eskabide-eredu normalizatua (deialdi honen eranskinean jasotakoa), eta erakundearen edo enpresaren ordezkariak sinatuta. Eskabide horretan hau adierazi behar da:

- Eskaeraren laguntza-mota (alokairu-kuotak, enpresa sortzea eta/edo modernizatzea).
- Laguntzen deialdi honetako oinarriak ezagutu eta onartzen dituela ezartzen duen adierazpena.
- Diru-laguntza publikoak itzultzeko edo zehapena jasotzeko ezin prozeduratan sartuta ez egotea jasotzen duen zinpeko adierazpena.
- Honako hau jasotzen duen erakunde eskatzailearen zinpeko adierazpena: zigorren eta administrazioaren arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko zigortuta ez egotea, ezta laguntzak jasotzeko ezgaitzen dituen legezko debekuen mende egotea ere. Zehapen eta zigor horien barruan sartuta daude sexua dela-eta inor baztertzegatik gertatutakoak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea dela bide.
- Jarduera bererako beste erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako edo eskatutako laguntzen zinpeko adierazpena.
- Minimisen araua betetzeari buruzko zinpeko adierazpena, Minimis laguntzak aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 (EB) Erregelamendua eta ondorengo berrikuspenek ezarritakoarekin bat etorritik. Aipatu erregelamendua 2006ko abenduaren 28ko Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 69/2001 (EB) Erregelamendua ordeztuko.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela jasotzen duen zinpeko adierazpena.
- Oinarri hauek argitaratu eta gero, Zallan zerga-erolden epigrafeko jarduera bat utzi ez izanaren zinpeko adierazpena.

b) Pertsona eskatzailearen identifikazioa.

- Eskatzailea pertsona fisikoa bada: nortasun-agiri nazionalaren fotokopia.
- Pertsona juridikoak badira: identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia, nortasun-agiri nazionala eta ordezkariaren ordezkartza-ahalordea. Horrez gain, enpresaren eraketa-eskritturen fotokopia (geroagoko aldaketak barne), eta, azkenik, dagozkion erregistroetako inskripzioak.
- Nortasun juridiko propiorik gabeko sozietate zibilen kasuan, kontratu pribatua ere aurkeztu beharko da, Foru Ogasunak zigilatuta.

c) Hirugarrenen altaren agiria, erakunde eskatzaileak eta banku-erakundeak sinatuta eta zigilatuta (eskaera-eredu normalizatuko laguntza helbideratzeko banku-datuen inprimakia, eta emandako diru-laguntza itzultzeko zordunketa-kontuaren inprimakia).

d) DEMAk, eskualdeko Behargintza zentroak edo lan-orientazioko jarduerak egiteko Lanbidek ofizialki baimendutako erakundeek lagunduta egindako bideragarritasun-plan bat eginda izatea. Planak jarduera hasi aurreko data izan behar du (komertzio berriak/zerbitzu profesionalak).

e) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izandako alta eta bajen egiaztatari eguneratua.

f) Enpresari Gizarte Segurantzaren emandako altaren kopia

- g) Lokalaren alokairu-kontratuaren kopia, alokairu-kuoten zenbatekoa jasotzen duena (alokairurako laguntzak).
- h) Lehenengo sei hilabeteetako alokairua ordaindu izanaren banku-egiaztagiriak (alokairurako laguntzak). Diru-laguntza jasotzeko aurkeztu diren kontzeptuen (behar bezala banakatuta) fakturen fotokopia eta fakturen ordainketaren banku-egiaztagiriak. Jarduera hasi aurreko sei hilabeteen eta jarduera hasi ondorengo sei hilabeteen artean egindako fakturak (enpresa sortzeko laguntzak).
- j) Diru-laguntzaren % 5eko gehikuntzari heldu nahi izanez gero, 4. atalean identifikatutako elkarte sektorialekoak izatea egiaztatzen duen agiria.
- k) Diruz lagundutako elementuen dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da.

Eskatzaileak baterako adierazpenean jasotako daturen bat faltsutzen badu, dagokion zehapen-araubidea aplikatu ahal izango zaio.

10. Akatsak zuzentzea

Diru-laguntzaren eskabideak deialdi honetan eta oinarri berezietan ezarritako eskakizunak bete ezean, 10 egun balioduneko epean (epea luzaezina da) akatsak zuzentzeko eskatuko zaie interesdunei. Era berean, jakinaraziko zaie eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela.

Eskaera ez da egindakotzat hartuko behar bezala bete arte eta espedientea osorik egon arte. Espedientea osatzeko, dokumentazioa erregistratu beharko da.

11. Eskaerak aztertzea eta ebaluatzea

Enkarterri Berri Zerbitzuak, SL sozietateak diru-laguntzak emateko prozeduretarako jarraibide orokorretako 9-11. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

12. Laguntza emateko ebazpena

Ebazpenaren jakinarazpena Enkarterri Berri Zerbitzuak, SLren administrazio-kontseiluaren presidentek sinatuko du. Jakinarazpenean jasoko da Enkarterri Berri Zerbitzuak, SL sozietateak diru-laguntzak emateko prozeduretarako jarraibide orokorretako 9-11. artikuluetan xedatutakoa.

Emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda bat argitaratuko da sozietatearen web orrian. Zerrenda horretan laguntzak ukatzeko edo onartzeko arrazoiak azalduko dira, deialdiaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Onuradun izateko deialdian ezarritako baldintzei dagokienez, berriz, kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu dela-eta kontuan hartu ez diren eskabideen zerrenda ere ebazpenean jaso beharko da, Diru-laguntzei buruzko Araudiaren (887/2006 ED) 63.3 artikuluan jasotzen denarekin bat. Beste ebazpen baten bidez, beste diru-laguntza batzuk eman ahal izango dira ezetsitako eskaeren zerrendako lehentasun-hurrenkerari jarraituz, betiere onuradunen batek berariaz uko egiteagatik askatutako kreditua agortu arte.

Horretarako, berariazko uko egitetzat hartuko da oinarri hauetan ezarritako edozein eskakizun ez betetzea.

13. Erakunde onuradunen betebeharrak

Laguntza horiek jasotzen dituzten enpresa, profesional eta erakundeek honako betebeharrak dituzte:

- a) Emandako diru-laguntza onartzea. Ildo horretatik, diru-laguntza ematen dela jakinarazten denetik aurrera hamabost eguneko epean, erakunde onuradunek berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egin ezean, onartutzat joko da.
- b) Laguntzaren xedea betetzea.
- c) Enkarterri Berri Zerbitzuak, S.Lk egin ditzakeen ikuskapen eta egiaztapenak onartzea, bai eta edozein kontrol-organo eskudunek (nazionalak zein erkidegokoek) egin ditzaketenak ere. Horrez gain, arestian aipatutako jarduerak gauzatzean eskatzen den behar besteko informazio aurkeztu beharko dute.

Merkataritza-legeriak zein onuradunari ezarri ahal zaizkion lege sektorialek agindu bezala, kontuen liburuak, diligentzien erregistroak eta behar bezala ikuskatutako agiriak edukitzea, bai eta diru-laguntzen oinarri arautzaileek eska ditzaketen kontuen egoera nahiz erregistro zehatzak ere. Hori guztia egiaztatze- eta kontrol-zereginak ondo bete direla bermatzeko.

Enkarterri Berri Zerbitzuak, SLri jakinaraztea laguntzen xede diren jarduerak finantzatzeko bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu direla. Jakinarazpen hori idatziz egin behar da, ebazpenaren berri izan eta hurrengo hamar egunetan.

f) Enkarterri Berri Zerbitzuak, SLri jakinaraztea diru-laguntza emateko kontuan hartu den edozein inguruabarren aldaketa, objektiboa zein subjektiboa izan.

g) Enkarterri Berri Zerbitzuak, SLri ematea laguntza-eskaera ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio edo dokumentazio osagarri guztia.

h) Jasotako funtsak itzultzea, deialdi honek ezartzen duena bete ezean.

i) Beharrezkoa denean, Enkarterri Berri Zerbitzuak, SLri jarduerari utzi izana jakinaraztea hilabeteko epearen barruan.

14. Ikuskaritza

Enkarterri Berri Zerbitzuak, SLk diruz lagundutako jarduerari buruz egoki iritzitako ikuskapen eta egiaztapenak egin ditzake, eta enpresa eta erakunde onuradunek eskatzen zaien informazio osagarria eman beharko dute. Ikuskapen lan hori egiteko, Enkarterri Berri Zerbitzuak, SLk zerbitzu teknikoen esku-hartzea eska dezake, eta, bereziki, toki-erakundeko kontu-hartzailetzarena.

15. Diru-laguntzen publizitatea

Aurkezpen-epea amaituta eta behin eskaera guztiak ebatzita, emandako diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da sozietatearen web orrian, deialdi honetako 11. artikulua araberan, eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 30. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

16. Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea

Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzen aldaketa orok emakidaren ebazpena aldatuko du, betiere arau honetan onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen badira. Horretarako, Enkarterri Berri Zerbitzuak, SLk aldatetari buruzko ebazpen horren bidez, doitu egingo dira emandako diru-laguntzak.

17. Diru-laguntzak itzultzea.

Onuradunak foru dekretu honetan zein emandako diru-laguntza onesteko ebazpenean ezarritako baldintzak eta helburua betetzen ez baditu, edo beharrezko baldintzak izan gabe lortzen badu diru-laguntza, emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko du; beraz, hala badagokio, jasotako diru-kopuruak zein aplikatu beharreko legezko interesak itzuli behar izango dizkio.

Honako hauek izango dira itzultzeko arrazoiak:

- Diru-laguntza horretarako eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada.
- Diru-laguntza ematea eragin zuen helburua bete ez bada.
- Egiaztatze betebeharra bete ez bada.
- Diru-laguntza ematerakoan onuradunari ezarritako baldintzak bete ez badira.
- Udalaren ikuskapen-lanei uko egin bazaie edo haiek oztopatu badira.
- Diru-laguntza gauzatutako jarduera baino handiagoa bada; horrelakoetan, diru-laguntzaren gaindikina itzuli beharko da.

Enkarterri Berri Zerbitzuak, SL sozietateak diru-laguntzak emateko prozeduretarako jarraibide orokorretako 9-11. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.

18. Araubide ordezailea

Deialdi honetan aurreikusi ez diren kasuetan, honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta berau garatzeko Erregelamendua; Enkarterri Berri Zerbitzuak, SL sozietateak diru-laguntzak emateko prozeduretarako jarraibide orokorrak (2017ko irailaren 7ko Batza Orokorrak onetsitakoa), eta tokiko gainerako araudia.

19. Datu pertsonalen babesa

Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, Enkarterri Berri Zerbitzuak, SLk jakinarazten du eskatzaileen datu pertsonalak

fitxategi automatizatu batean sartu eta sozietatearen, Zallako Udalaren eta bere erakunde autonomoen informazio-sisteman sartu ahal direla. Datu horien erabilera udal-kudeaketarako baino ez da izango, eta beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal zaizkie, Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritako kasuetan. Titularrak datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango ditu.

Laguntzen programan parte hartzeak esan nahi du jakinarazten diren datu pertsonalak beste administrazio publiko batzuei edo sozietatearen erakunde laguntzaileei laga ahal zaizkiela, eta zabalkunde orokorreko komunikabideetan argitaratu daitezkeela.

20. Baliabide ekonomikoak

Laguntzen funtsak ekitaldi bakoitzeko sozietateak helburu horretarako duen aurrekontu-baliagarritasunaren mendean daude.

Hala ere, partida horren zenbateko osoa alda daiteke, EBZk hala erabakitzen badu.

21. Azken xedapena

1. Laguntzen deialdia sozietatearen web orrian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, Enkarterri Berri Zerbitzuak, SLren administrazio-kontseiluak onartu ondoren.

2. Enpresa edo erakunde interesdunak eskabidea aurkezteak esan nahi du deialdiaren oinarriak onartzen dituela.

Zallan, 2018ko Martxoaren 15ean
Enkarterri Berri Zerbitzuak, S.Lko presidentea
Javier Portillo Berasaluce